

Azkue Bibliotekako batzordeko buru izendatu dute Torrealdai

Arana Martijak Euskaltzaindian utzitako hutsunea beteko du 'Jakín' aldizkariko zuzendariak

ERREDAKZIOA DONOSTIA

Euskaltzaindiaren osoko bilkurak bi izendapen onartu zituen joan den ostiralean, Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuen hil amaierako bileran. Alde batetik, Joan Mari Torrealdai euskaltzaina Euskaltzaindiko bibliotekari akademiko eta Azkue Bibliotekako batzordeko buru izendatu zuen. Jose Antonio Arana Martijak betetzen zuen kargu hori 1995. urtetik, baina joan den hilean hil zen, eta haren zeregina Jakín aldizkariko zuzendariak hartuko du aurrerantzean. Besteak beste, Akademiaren liburu, eskuizkribu eta gutunak gorde eta kontserbatzea eta Azkue Bibliotekaren organo gorenaren buru izatea egokituko zaio Torrealdairi.

Arana Martija Euskaltzaindiko Argitalpen batzordeko kidea ere bazen, 1989. urtetik. Lan horretarako ere ordezkoa izendatu zuen osoko bilkurak: Miren Azkarate. Argitalpen batzordearen eginkizuna da argitalpen guztiak, edozein delarik haien euskarria, programatzea eta onartzea.